BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

www.euskerazaleak.biz

324n. zenbakia

2007 urtarrila

ZER

BFA
DFB

Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

LAGUNTZAILLE

BURU-ARGIAK ETA IRAULTZAK.

Aspaldiko gizaldien edestian garrantzi aundia izan dabe Buru-Argiak edo ilustrauak.

Onein burubideak lortu dabe, ondoren datorren iraultza eta onen frutua dan demokrazia.

Nondik datorren "gizaki bat-autarki bat" jokabidea?

Rousseau´ren gizarte-ituna deritxon liburutik.

Nondik datorren agintaritzan iru mailla eta arlo izatea,legegilleak,bete-eragilleak eta epaikariak izatea?

Monteskieu´ren esaldietatik. Eta abar...

Euren jakituri guztia liburu baten agertu nai izan eben eta Entziklopedia izena ezarri eutsoen.

Aldakuntza arrigarri orren ondorenak Europa osora eta Ipar-Ameriketara eldu ziran, baiña ez beti bide egokiz.

Frantze´n ondoren izukerizkoa izan zan. Robespierre eta lagunak, euren eritxikoak ez ziranak (erregeagandik asita) gillotina´ra epaitu ebezan. Gero eurak be gillotina beratan iltera epaituak izan ziran. Negargarria gizakiak gizonak ilteko dauan jokerea! Demokrazi-bideak asmatu olako ondorena aterateko?

Ipar-Ameriketan beste jokabide bat artu eben. Egokiagoa, eta, sartaldean guda batzuk izan arren, ainbeste erriren buru bakarra zan laterria sortu eben, laterri aberatsa, gaur arte.Aurrerapen aundia lurralde zabal areitan, baiña bertako inditarrak baztertuta. Ego-Ameriketan, ostera, inditarrakaz ezkontza-nasteak egin ebezan eta ez zan lortu olako aurrerapenik.

Euskalerrian Buru-Argiak lan ederra egin eben:Azkoiti´ko Zalduntxoak deritxen alkartea sortu eben eta onein ondoren ederrak dira Bergara´ko Seminario ospetsua,wolframioa aurkitzea eta jakituria zabaltzea.

Baiña inguruetan erri txiroa aurkitu eben lez, Gaztela´n be bai, euren jokabide ederrak ez eben lortu ondoren aundirik. Burubidea benetan ona zan!

Gaztela´ko errietan zelako ezjakintasuna egoan ulertzeko,ona emen jazoera bat. Burgos´ko iparraldean Artzipreste bat egoan eta onek ikertzaile bat artu eban. Ikertzailleak bere ikustaldia amaitu ebanean zorionak emon eutsozan artzipresteari: Zure barrutian beste lekuetan ez dagoen gauza egoki bat aurkitu dot: zuen,lurralde guztirako eskoletako irakasle edo maisu bat daukazue. Olakorik ez dago beste arzipreste- barrutietan!.

Pentsatzekoa da maisu bakar orrek lurralde osoan, amar-bat erri bai, lan urria egingo ebala, baiña beste olako lurraldeetan ori be ez.

XVIII gizaldia benetan txiroa zan jakintza-arloan. Azkoitiko Zalduntxuak edo Eusko Ikaskuntza Alkartea izan zan Euskalerririk zabaltzen zan Buru-Argien argi ederra.

OLAZAR´tar Martin´ek.

PRAI BARTOLOME (1768-1836)

Etxebarri´n jaioa da Prai Bartolome (Madariaga).

Lazkao´n, Korella`n eta Iruña´n egin ebazan eleizikasketak.

Gero bere bizitza osoan, Markiña´n bizi zala, errimisiolaria izan zan.

Napoleon asita politika gorabeerak garraztu eben bere bizitzea. 1808n. urtean Markiña´ko lekaide-etxean nagusi zala,ara ta ona erabilli eben eta geroago, Riego´ren nastean, estu artu eben. LAZKAO´N IL ZAN.

Orixe´k "nire idazle zar kutuna" esaten eutson maitasunez.

Lau liburu idatzi ebazan, oso irakurgarriak:

1) Errietako olgetak.

2)Lenengo bost aginduak.

3)azkenengo bost aginduak.

4) Eleizako zazpi sakramentuak (36 itzaldi).

Orduko oitura zan lez,Prai Bartolome´k gordin eta garratz salatzem dauz, bere ustez txarrak ziran aldi aretako oiturak, batez be Errietako olgetak eta dantzak izenan daroan liburuan.

Ez da garbizaleegia eta ez mordoillo.

Ona emen aztertzeko idatz.zatitxu bat:

GURE ARIMIA

"Egia esateko, arimiaren gainian zorakeria asko erakutsi edo esan ditue gizonak. Zeruko argia bagarik ta Jaungoikoaren laguntzauna bagarik geure arimen gainian berba egin dabenak, jausi dira uts-egite andi ta askotan

Baina Eleiza Ama Santiaren erakutsiari ta Jaungoikuaren deiari gogoz eta gustuz jarraitu dautsenak, bide illunetan bere ez dabe utsik egin. Arimiaren ganian bere Eleiza Ama Santiari ta Jaungoikuari berari entzun biar dautsagu bada, neure kristiñauak".

OLAZAR´tar Martin´ek.

FILOSOFIA´REN EDESTI- LABURPENA.

Senideok: Gai luzea da artzen doguna, luzea ta sakona, baiña alegindu gaitezan ulertzen. Jakingarria da.

ZER DA FILOSOFIA

Mundua eta gizakia ulertzeko era bat. Era asko dagoz eta orregaitik dagoz filosofi asko.

Asierako filosofia erlejiñoa zan eta erlejiñoak oiñarria leienda edo kondairetan eukan. Olan Biblian, Buda´n eta Konfuzio´n.

Filosofi utsa Grezia´n asi zan eta orregaitik Grezia´ko filosofia´ren iturri dan Sokrates´eri eriotzarako epaia ezarri eutsoen, "ateo" zalakoan.

Asi gaitezen Sokrates´en aurrekoakaz:Batzuk mundua aize utsa dala esan eben, beste batzuk lurra baiño ez zala, beste batzuk ura zala, beste batzuk sua zala Batek esan eban mundua zenbakiak zirala (Pitagoras). Au maixu aundia zan eta bere ikasleakaz alkartuta bizi zan lekaide-antzera.

Parmenides´ek munduan dana egoala geldi esan eban, Heraklito´k ostera mundua dana zala eragiña, panta rei. Onein ondoren zoritxarreko sofistak etorri ziran, filosofia diru-truke emoten ebenak. Ezagunak dira onein aporiak (Elea´ko Zenon´enak). Esaterako Akiles eta dortoka. Mobimenturik ez dagoala!

Leuzipo ta Demokrito atomistak ziran eta mundua atomoz, zatitu-eziñeko zatitxuak osotzen ebela esan eben. Ez ziran urrin ibilli!

Baiña munduko filosofia guztiaren gaillurra lortu ebenak Plato eta Aristoteles dira. Bien maixua Sokrates izan zan.

Sokrates Perikles´en aldian bizi zian zan (470 K.a.) Ez eban ezer idatzi. Plato´k agertu eban bere irakatsia, apur bat berea be sartzen dauala, Dialogo edo alkar-izketetan.

Melitos´ek salatu eban Sokrates ateotzat eta zikuta edan eragin eutsoen. Bere ustez betiko zoriona lortu eban.

Maieutika zan bere irakasbidea. Egia barruan daukagu eta atera egin bear dogu. Orretarako bidea itaunak dira: Lenengo gaia agertu, gero ezetza eta gero baietza. Edo egia.

Sofistak alboratzea lortu eban eta onein aurka jokatzen eban.

Danaren oiñarria arimea dala diño eta ariman dagoala egi osoa, itaunakaz atera egin bear dala. Orretarako bakoitxak dauko buru argia, baiña guztien buru argia Jainkoa da.

Onen ostean zinikuak etorri ziran Diogenes tiñakuan eukela, atsegiña billatu bear dala esaten. Urrengo Zierene´tarrak atsegiña billatu egin bear dala eta onena aukeratu esaten eben oneik-

PLATO

Sokrates´en jarraitzaille zintzoa izan zan eta akademia eritxon irakastokia irasi eban.

Ezagutzeko bide daukaz. Bata dakiguna, ariman jainkoak ipiñi eban egia edo ereduak. Guk ori agertu egin bear dogu, maieutikaren bidez. Ori da aletheia edo egia, agertua. Beste bidea zentzunena da, baiña onek ez dau egiten barruko egia,ereduak,agertzen lagundu baiño.Oneri Aristoteles´ek emongo dautso garrantzia.

Plato´ren irakatsiak katalogatu barik agertu ziran Dialogo´etan, baiña Aristoteles´ek katalogatu ebazan: Egi osoa ariman dago, ereduetan, ideas innatas, maieutika´ren bidez agertu egiten dira. Gorengoa ontasuna da, gero batasuna eta gero egitasuna.. Mundu-egillea Demiurgoa da. Baiña ereduak euki arren, txarto egin eban. Arimea il-eziña da. Laterrian agintariak filosofoak izan bear dabe, orrei laguntzeko dira zaintzailleak, eta danari eusteko esku-langilleak.

Sokrates ertilarien aurka dago, mundua txarto imitatzen dabelako.

ARISTOTELES (FILOSOFOA)

Plato´ren ikaslea izan zan K.a. 384 (Alejandro Aundiaren ezitzaillea).

Akademia baiño ikasleku obea sortu eban Lizeo eritxon basoa. Ikasleak peripatetikos ziran, biraka ibiltariak.

Liburuak: Lojika edo organon 14 liburu, Fisika 43 liburu, Lenengo filosofia 14 liburu, Etika 19 liburu eta esthetika 5 liburu. Politikari luzero ekiten dautso.

Lojika´k ideiak, esaldiak, silogismoa dakaz, kenketak edo «abstraccion» bide dala.

Fisika mundua aztertzeko da eta orren ostean sakonago dagoana da Metaphisika».

Bizidunak arimea daulke eta zu ileziña da.

Gobernua zelan eratu? Filosofiak agintari, gero aristokrata, gero demokratak. Asko idatzi eban. Talde oneik usteldu egin leitekez: Erregea/tirano, Aristokrazia/Oligarkia, Demokrazia/demagogia.

Komunismoa ez da onartzen, sen dia ta banakakoen aurka doalako.

BERAKADEA

Filosofiaren mailla aundi ori arin jausi zan.

Aristoteles aiztuta geratu zan milla urtean. Abizena eta Aberroes, semitak, agertu arte.

Plato´ren ideak edo ereduak bizi izan dira edesti osoan, eta ez jataz atsegin. Esaterako San Augustin´en.

Epikurotarrak edo Zirenetarrak jarraitu eben gero, onein artean Selneka.

Erroma´n Folosofo giyxi. Zizeron apur bat eta Marko Aurelio enperadorea.

Filon judatarra izan zan Plato-zalea. Plotino be bai. Eta San Augustin.

525n. urtean daukagu Boezio bere «Filosofia´ren kontzelua» liburuagaz. Eta Karlomagno´ren Akisgranén Alkuino.

Eta sortaldean zer? Erlejiño mitoai jarrauitu eutsen. Buda bere nirbana´gaz Metempsikosis, Konfizio, eta Persia´n Zaratrusta Arhiman eta Auramazda´gaz.

ESKOLASTIKA

Erdi aroa ez da milla urteko illunaldia. Ba-dagoz argiak. Abraam´en ondorengo diran iru erlejiñoetan Eskolastika dogu Erdi-Aroko filosofia eta lau aldi daqukaz: 1- Zsorkuntza (IV-V) 2- Azkuntza (XII) 3- (725) Rabano Mauro (/($) XI Eskoto Eriujena (Panteista?)

Pedro Damiano´ko lortu eban filosofia teoloji´tik askatzea.

San Anselmo (1033) Eskolastika´ren aita eta jainkoa badagoela baiezteko: Argumento ontolojiko asmau ebana. Jainkoa aundiera da, baiña ez bada beste bat dago aundiagoa dana.

FILOSOFIA

Azkuntza: Zister´tarrak dagoz oiñarrian. San Bernardo 1112. Plato´ren bidea artzen dabe, baiña ereduak kenduta.

Hugo de San Biktor. Mistikua, Plato-zalea, baiña kenketas bide dala.

Pedro Abelardo (XII) abadea, Eloisa´gaz maiteminduta, «Maestro de las Sentencias». Paris´ko gotzain izatera eldu zan. Bere bidea «bai» ta «ez» ena da. Santo Tomas: Videtur quod non edo sic. Suma idatzi eban.

Azkuntzan, Pedro Abelardo´ren inguruan Sem.´darrak agertzen jakuz: Aberroes, Abizena, Maimonides

URRE-ALDIA: Amairugarren gizaldi-inguruan Eskaleak edo «medicantes» deritxen lekaide-sailak agertu ziran eta oneik izan ziran irakasle nagusiak: Frantziskotarrak eta Txomindarrak.

Frantziskotarrak Plato´ren bidea artu eben, san Augustin´eri jarraituz eta aldatuta Orrelan esaterako San Buenabentura (1221): Onen gai nagusiak oneik dira: Jainkoak ba-dago, San Anselmoren bidea onartuta, Mundugintza Plato´ren ereduak bide dirala, baiña ezagutzeko bidean zentzuak onartzen dauz, eta Plato´ren adimen bakarra zentzunak alkartzeko.

Onein artean eskola barri bat sortu eban Juan Duns Eskoto´k (Dr. Subtilis) edo zorrotza. Ezagutzeko intuiziñoa artzen dau bide lez eta beste mailla baten kenkleta be bai.. Mundugintza Plato´ren ereduak bide dirala.

Gillermo Ockan: Au nominalista da, ez dauz unibersalak onartzen, nomina baiño ez dira. Emen asten da berakadea eskolastikan.

Oxford´eko unibersidadea be ona izan zan, baiña ez Plato´ren bidetik, eskolastika zarraren bidetik baiño. Robero Grosatesta (1175) eta Bakon(1210).

Txomindarrak datoz gogotsuago Paris´eko Unibersidadetik. Alberto Magon maixua eta Akino´ko Tomas irakaslea: Pedro Lombardo izan eban ikas-liburu. Ez dauz baztertzen San Augustin eta Plato, baiña Aristoteles (Pfilosophus) dau bedeerakusle. Arabiarrakandik eldu jakon.

Onentzat filosofiak zati oneik daukaz: Fisika edo izadia, ideak edo metafisika, eta jokabidea edo etika. Kenketan be iru mailla dagoz: Fisika, matematika eta metafisika.

Plato´ren ereduak ez dauz onartzen.

Beerakuntza: XIV gizaldia, Aita Santuak Abignon´en dagozela.

Durando txomindarra eta Ockan nominalista dira nagusi.

FILOSOFI MODENOA

Buru argiaren bidean:

Deskartes da asierea. Zelan ezagutu niorbena? Cogito ergo sum, eta beste gauzak? Buruibide argiak beti.

Urrengo datoz Malebanche pietista Aristoteles´en aurka.

Urrengo Leibniz bere Armonia prestablecida ta monadakaz.

Espinoza okasionalista eta panteista.

Zentzunen bidean:

Hume (1711) azkenean dana zalantzara. Empirismo.:Kompte.

Or bitartean ilustrauen bidea dago. Oneik bizitza guztia aldatu eben, materialismoaren bidetik jokatuta eta Enziklopedia bide zala. Politikan Monteskieu izan zan laterriaren almenak banatzekoa bidea ekarri ebana: Legislatibo, ejekutibo judicial. Rousseu´k bere kntrato social´agaz autezkundeak asmatu ebazan: Gizaki bat = boto bat. Voltairen be euren artean dago. Au euskaldunen laguna izan zan (Auñamendi inguruan txistuagaz dantzan egiten dauan erria). Eleizearen arerio gogorra izan zan, «infame» dala diño.

Onein ondorena izan zan Frantze´ko iraultza negargarria. Ipar Ameriketan iraultza obea.

KANT

Auxe da filosofo modernoen artean nagusi, Santo Tomas bere aldian izan zan antzera.

Ezaupide bi dagoz: Buru argia edo Razon pura. Ori ez da eltzen Jainkoa ezagutzera (Agnostikoa) eta buru egillea edo razon praktika. Onek ezagutzen dau Jainkoa.

Esaldi batzuk «a priori» dira, analitikuak, buruak ateraten dauz, beste batzuk sintetikuak eta oneik be «a priori» eta «a posterioori» edo eksperientziszkoak.

Zelan ezagutzen dogu? Fenomenoa baiño ez, numero´ra eldu barik. Amabi kategori dagoz. Eta postuladoa´ak be bai.

IDEALISTAK

Kant´en ostean edo inguruan etorri ziran idealistak, Deskartes eredu lez artuta.

Fichte´k idea argiak baiño ez dauz onartzen, Deskartes´en antzera.

Schelling izan zan onen jarraitzaille sutsua.

Baiña idealisten artean nagusi Hegel da. Onek asmau eban dialektika´ren bidea (tesis, antitesis, sintesis) eta bide au artu eben komunistak materialismo barruan..

Hegal´ek dakaz "nazi"en oiñarri diran ideia batzuk:Aginterriak sortaldetik sartaldera datozela, Prusi dala laterri nagusi (gero Alemania) Laterria dala gauzarik aundiena, gudak bearrezkoak dirala Napoleon´en antzera lurraldeak lortzeko.

Idealisten ostean Kierkegard daukagu (1813) beronen folosofi larriagaz (filosofia de la angustia)

Schopernhauer (1788) Kant´en jarraitzaille ona . Gizona estetikaren bidez egiten da eta voluntas edo bizi-gurea kendu egin bear dau eta "noluntas" artu.

Nietzsche dator gero, "Jainkoa il dogu" arro esaten eta Gizandia edo superhombre sortzen. Kristiñautasuna dau gorroto, eta jopuen, esklabuen erlejilñoa dala diño eta zoratuta il zan.

Apaltasuna esaterako esklabuen onouimena da.

Azkenean bere burua artu eban jainkotzat eta zoratuta il zan.

Sartre dogu eksistentzialisten buru.

GAURKOAK

Gaur filosofo gitxi dago eta motelak

Bentan (1748-1832) Utilitarista eta atsegin-billa.

Stuard Mill.

Ameriketan pragmatismoa: Peirce, W.James, Dewey...

Izkuntzaren filosofoak: Russel.

Bergson, guztiz ona. Elan Vital.

Benedicta edo Edith Stein (Santa).

Adorno, munduko goseagaz arduratuta, olokaustoaren eta faksisten arerioa.

Markuse: (+1979) Gizarte aztertzaillea.

Ermeneutika-bidea:Argi berba egin.

Derrida, 1930n. urtean jaioa, logozentrista, gizona ez da ezer. (2004n. urtean il da.,74 urtekoa dala).

Neotomistak: Maritain,Mounier(+ 1947) Marcel(+ 1947) Juan Paulo II Max Echeiller, baloreen filosofoa.

Filosofo euskaldunak:Antxiña Kintiliano, Benu Kasi´tarrak, Jone Albrit, Urraburu (Zeanuri) Unamuno, Juan Zaragueta Paulino Garagorri, Zubiri.

Filosofoak Jainkoa il dabenean, eurak geratu dira ilda.

OLAZAR´tar Martin´ek.

AITA SANTI ONAINDIA´ REN LANA ZABALTZEN

2006-11-23´an garrantzi aundiko batzarra egin gendun Amorebieta-Etxano´ko udalaren batzar-tokian.

Geure inguruan laguntzailleak genduzala batu giñañak oneik izan giñan: Alkate jauna, Foru Aldundiko Gotzon Lobera jauna, Larra´ko aita karmeldarren Nagusia, eta agiri au izenpetzen dodana Euskerazaleak Alkartean lendakari lez.

Gaia Aita Santi´ren lan guztiak zabaltzea zan. Poz aundia geunkan, guztiok Idazle onen lagun aundiak giñalako.

Eta zelan zabalduko da Aita Santi´ren lana, larogei-bat liburu eta aldizkarietako ainbeste lan?

CD bat argitaratuko goi-maillako ikastegietarako eta, mundu guztiak ikusi ta aztertu al dagian, internet´era sartuta.

Itunaren argazkizko aldakia agertzen dautzuegu, baldintza guztiak ikusi al dagizuezan.

OLAZAR´tar Martin´ek.

AMOREBIETA - ETXANOKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AMOREBIETA - ETXANO

ametx erakunde autonomoaren zornotza

EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN ETA AMOREBIETA-ETXANO´KO UDALAREN ARTEAN

ITUNA

2006n urtean, zemendiaren ogeitairugarren egunean alkartzen dira:

Alde batetik: David Latxaga Ugartemendia jauna, **AMOREBIETA-ETXANO´KO UDALAREN Alkate Lendakari lez** (eta beronen izenean eta ordez diarduana, orretarako bear dan lez aimenduta), eta bestetik **Olazar eta Uribe´tar Martin jauna, EUSKERAZALEAK ALKARTEA´ren lendakaria.**

Alkarkide biak itun au egiteko eskubidea eta gaitasuna daukela autortzen dautsoe batak besteari eta auxe erabagi ta izenpetzen dabe:

1. **Euskerazaleak Alkartea, Aita Santi Onaindia´ren** lan osoa dijitalizatzen dabil, gero Alkarte onek berea dauan www.euskerazaleak.biz web orrian argitaratzeko.

2. Lan ori osotzeko **Euskerazaleak Alkarteak** berbea emoten dau bere lan ori CD baten argitaratuko dauala, orretarako Larrea´ko Aita Karmeldarren Lekaide-etxetik bear dan baimena lortuta, oneik diralako Aita Santi Onaindia´ren lan osoaren jabeak.

3. **Amorebieta-Etxano´ko Udalak Ametx Erakunde Autonomoaren bidez,** 3.500 € ordainduko dautsoz Euskerazaleak Alkarteari lan ori aurrera eroateko.

4. Lana 2006 urtean zear burutuko da. Ori egiteko daukagun epea Zezeilla´ren 15ean amaitzen da.

5. CD´en aurreko orriaren baimena eta oneri dagokion azal eta 1.000 aldaki izango dirala zeatz esanda, **Amorebieta-Etxano´ko Udalaren** jabetzakoa izango da. Orretarako Amorebieta-Etxano´ko Udalaren "logo" bat sartuko da CD´an eta azalean, auxe diñoala:

AMOREBIETA - ETXANOKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AMOREBIETA - ETXANO

Amorebieta-Etxano´ko udalaren laguntzaz argitaratua

Larrea´ko Aita Karmeldarren baimenagaz egindako lana

Euskerazaleak Alkartea´k egindako lana

Amorebieta-Etxano´ko Alkatea

David Latxaga Ugartemendia

Euskerazaleak Alkartearen Lendakaria

Olazar eta Uribe´tar Martin

AITA JUSTO MOKOROA (NAPARROA) (1937-11-30)

Guztiok ezagutzen izan dogu aita Justo Mokoroa lekaide eskolapioa. Gauza bigaitik batez be: Naikoa antxiña idatzi eban ain irakurria eta eragillea izan zan "Genio y lengua" liburua, erderaz baiña eusko gogoa agertzeko eta euskaldunak alkartzeko oso egokia. Orain-tsuago idatzi eta argitaratu eban esaldien liburu ederra ale bitan.

Baiña gaur beste agiri batek urreratzen gaitu aita Mikoroa´rengana: Erromara bialtzeko agiri bat egiteko eskatu eutsoen aita Justo´ri. Gaia: Uztailleko matxinada dala-ta azterketea egiteko jakingarriak eta erlejiño aldetik norantza jo dauan matxinada orrek. Dana Naparroa´ri begira.

Txosten eder au 1937´ko zemendiaren 22´an eginda egoa eta abenduaren 2´an emon ziran azkenengo jakingarriak. Baiña txostena eskatu ebanak berak gorde eban eta ez zan sekula Erroma´ra bialdu.

Jose Mª Ganboa idazleak argitaratu dauan "La guerra civil en Euzkadi" liburu aundian daukagu eta 17 orrialde daukaz. Aleginduko gara laburpena egiten al danik mamiñik gitxien galduta

Justo Mikoroak Belloc´era eroan eban txosten au 1937´ko zemendiaren 30´ean.

Egia esan, Naparroa´n ez zan gudarik izan, baiña emen ikusten da zelako jazarpen odoltsua izan eben lurralde guzti aretan abertzaleak eta erkal edo errepublika-zaleak. Ekintza orreitan reketeak egin eben lanik geiena baiña abade karlistak be lan lotsagarria egin eben orreikaz batera eta sarritan izkilluak eskuetan ebezala. Eta naparrai azurretaraiño sartu jaken bildurra eta gaur be ango abertzaleak bildurrez dagoz. Laster agertzen da ori ikastolak egin nai diranean. Dana dala, gaur ba-doaz gauzak aurreratzen, bertako agintariak aurka egon arren.

1.-AURRETIAZ AGIRI ZANA.

Guda ori erlejiñoaren alde joiala esan jaken eta sinistu be bai eurak, emon be itxura ori emoten eben reketeak eta euren lagunak eroiezan ainbeste domiña, kapellau eta mezak. Baiña gauzea obeto aztertzen ebanak ba-ekian barruan joian guraria ebanjelioagaz alkartu-eziña zala.

Joan dan urterrillean Iruña´ko Gotzaiña omendu eben, baiña omenaldian egozan abeslariak abertzaleak ziran eta zurrumurru txarrak zabaldu ziran orregaitik Gotzaiñaren aurka reketeen artean: "Olaetxea bizkaitarra ta abertzalea!", esaten eben.. Gotzaiñak argi azaldu eban arazoa eta pentsabide bat emon eban:"Abadeak ez beitez partidueta-ra sartu" Luze egin eban berba orretzaz eta abertzaleak b-e txalotu eben. Asko zabaldu zan berbaldi ori, baiña izparringiak ez eben argitaratu, Diario de Nabarra peridiku abertzaleak izan ezik.

Gotzaiña abertzale lez salatua izan zan, errekete edo karlisten partiduan sartuta abade asko egoalako.

2.-ABADE NAPARRAK ETA MATXINADEA

Uztaillaren 19n. eguna domekea zan eta abadeak ugari agertu ziran Gastelu-Plazan sotaneagaz baiña txapel gorria eroiela. Onein artean egoan Mariano Sanguesa kaputxiñoa, "Viva España" zarataka.

Abadeak erriari dei egin eutsoen "Jaungoikoaren eta Eleizearen alde izkilluak artzeko ordua eldu zala" esanez eta gazteak naimenez, "voluntario", joan ziran gudara erlejiñoa zaintzeko.

Luzaro egon ziran abadeak ori sinistuta.

Urrillaren 30n. egunean esan eustan abade batek:"Naparroa errukarria iruzurtu egin dabe. Au ez da erlejiño-guda, guda basati bat baiño".

Ordurako abade asko egoan kapellau joanda. Lezaun´go abadeak reketeai gudarako gertakuntza (instrucción) egiten eutsen. Abertzale batek ikusi eban gaberdian karlisten iragarkian ormetan ipinten. Armak eukazan etxean eta arin sartu zan gudara.

Kapellau naparrak zispa edo pistolakaz ibilten ziran, euren arerioak autortzerakoan be baten baiño geiagotan, eta kapellau onein morala be sarritan okerra zan, naiz lapurretan naiz bortxaketan ikusten ziran "irabazi"tako errietan

Kapellau joateko parrokiak edo karguak bertan bera izten ebezan baimen barik, eta lekaide-etxetatik euren lekuak bete bear izaten genduzan.

3.-ESKOLAPIOAK ETA KARKLISTEN GUDA-BATZOARDEA.

Gudarako karlistak euken batzordean Ulivarri jauna agiri zan. Au Eskolapioen lagun eundia zan eta Zaragoza´n bizi zan. Abertzaleen arerio aundia zan eta izter-

begiz ikusten eban Eskolapioak sortu eben "probintzi" barria, euskaldunak eta naparrak alkartu eta Aragoi´tik aldentzeko. Ori 1933n. urtean izan zan.

Guda asi zanean laster esan eban Ulivarri jaunak probintzi barri ori ez zala luzaroko izango. Barriro Aragoi´gaz batzea nai eban.

Asmo ori alboratu egian, bakea egiteko, sei lekaide, erki edo probintzi burua euren artean, erbesteratzea eskatu eban eta lortu be bai.

Orretarako gorabera aundiak izan ziran baiña eurak gogor egozan eta erki-buru edo probintziala kendu nai eben, beroneri esan be egin barik. Probintzialak arazo ori bere nagusien eskubidea dala esan eban eta orrelan alboratua izan baiño naiago ebala espetxea naiz eriotzea.

Beste bostakaz batera erbestera urteteko agindua emon eban Karlisten Guda-Batzordeak.

4.-ZELAN ARTUAK IZAN DIRAN EUSKAL ABERTZALEAK.

Naparroa´n ez zan iñor jarri matxiñoen aurka: Abertzaleak gudara joan ziran erreketeakaz eta falanjekoakaz. Napar Buru-Batzarreko abertzaleak neutral geratzea erabagi eben. Matxin-zaleak, ostera, batzokiak itxi egin ebezan eta falanjekoak "Diario de Navarra"ra sartu ziran eta arrezkero ez da geiago argitaratu. Agerre zuzendaria arrapau eben falanjekoak eta espetxeratu. Euskaldun Txikiak, Gaztedi euskalduna eta "Solidaridad" zapuztu ebezan eta onein etxe-barruetan egoana dan a oztu.

Abertzaleen erakundea alboratuta geratu zan, legez kanpo.

Agustuan asi ziran abade abertzaleak baitzen. Egun batean bai eta bestea ez aurkeztu bear eben liburu baten euren izena ipinteko eta "Viva España" deadarrari erantzuteko.

Falanjekoak "Diario de Nabarra"n ostuta euken irarkolagaz "La Voz de Navarra" argitaratzen asi ziran.

Iraillean asi ziran erri txikietan abertzaleak su-izkillatzen.
Ikara itzala sartu eutsen abertzaleai eta askok iges egin bear izan eben.

5.-JOKABIDE OKERRAK, IÑOZ ENTZUN EZ DAN ANKERKERIA.

"Nik liburu bat neukan argitaratuta, euskaldunen gogoak alkartzeko asmoagaz. Nire nagusiak ikusi eban nire arriskua eta iges egiteko esan eustan. Ni Iruña´n bizi nintzan 1934n. urtea ezkero, eta antxe nengoan matxinadea asi zanean eta antxe egon naz zezeillaren 30´era arte. egun onetan joan nintzan Elizondo´ra, urrengo egunean muga igaroteko asmoz"

Naparroan,asieran, matxin-zaleen alde egozan naparrik geienak. Ezin ezer egin!

Baiña Erribera´n laster asi ziran erailketak egiten falanje´koak eta reketeak. Egunero ikusten ziran gorpuak bide-ertzetan, soloetan eta landetan. Erailketa onein aurka gizon ospetsuren baten agiria agertu zan, baiña alperrik! Eurak "bearrezko garbiketa" zala esaten eben, abade batzuk be bai:"Olakoen azirik be ez dogu bear!"

Eta sarritan erailteko zioa apentza personalak izaten ziran. Urrillaren azkenerako 7 000 ziran Naparroa´n suizkillatuak.

Bellok´en 1937-11-30. **JUSTO MOKORO´ak.**

* * *

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:
EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5
Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.
Eskerrik asko!

EUSKALERRIA (III)

SARRERA:

Euskalerriko bigarren idaz-lanean ikusi dogu, Euskal-Izatasunak erdi-aro guztian, zelako eragozpenak euki dauazan, askatasun osoan bizi al-izateko.

Mundu onetan, edo Europa bideratzeko batez-be, errietan ezarri ziran erregeen-jaurkintzak itxura baten antzekoak izanez gain, ez eben euki zer ikusirik Euskaldunak euki genduzan jaurkintzaren oiturakaz, demokraziaren askatasunezko antolarazian zuzentzen gintzazalako.

Kromañon`etik urrialdian edo txikiagotzen joanda, Auñamendi-kate onen alde bietan zaldikatuta gaur daukagun lurraldean bizi gara, asierako ikas-bidetik eten-bako arian edo jardunezko (empirikamente) oiturantzan JAINKOA`ri begira.

Erromatarren menperatzaille asmotatik, Europa`ko sasi-jauntxoak, Mundu au JAINKOA`gandik BEREZTASUNAREN-NORTASUNEZKO LEGE`an OIÑARRI-TUTA dagoena, jaunkerian (imperialismo) bideratu gura izan dabe beti.

Mundu oneitan, Zer izan-gura dabe, edo Zer gura dabe, berezko-legeari, gizarte ta erri-giza-barnearen eskubideai, ain lotsagabetasunezko NORKERI orreikaz jaramon ez egiteko?

Mundu onek daukazan legeakaz, ekanduzko oreka baten bizitzea eskatzen dausku. Eta menperatzaille-asmo orreikaz, ankaz-gora daukagu dana.

Izatasunean, Oiñarrituta Gagozan Giza-barneko Sendimentutik ez da geratuko ezer?

Gizon-emakumeak, sekula ez dabe al izango, oiñarritutako lege orreik norberagandik erauzi edo zusterretik ebatuta kanpora bota.

Euskalerria, orregaitik izan bear da itxaropentsu, bere senean dagoalako demokraziaren-askatasunezko altxor aundi ori. Eta kontuan euki: Alemania, Italia, Frantzia, Espaiña, Polonia, Inglaterra eta abar, izan ba-ziran altxor aundi orren jabe, gaur Babel`en antzera, egundoko oroitkarri bat eraikita eukiko ebela.

EUSKALERRIA`REN ERAGOZPENAK:

ARANA`tar SABINO`k JAINKOA`ri begira, Euskalerria`ri itandu eutson:"JAIO ETE NINTZAN NI, ZURE IL ORDURA ELTZEKO?".

Baiña laster emon eutson erantzuna:"-BEREINKATUA IZAN DAITELA NIRE ABERRIA EZAGUTU NEBAN EGUNA ETA BETIRAKO ESKERONAK, ARROZTASUNEKO ILLUNTASUNETIK ATARA NABENAI".

Egia esan eban orduko denboran, Euskalerria il zorian egon zalako eta bereala bizkortu egin zan.

Euskalerria`ren orduko egoera-larria, gaurko egoeraren antzekoa izan zan, kontuan eukiten ba-doguz, len guda indarrarren bidez estukuntza aundiagoan sartuta egon giñela, Euskal-Nortasunaren arnasa aundiagoa izan zalako.

Gaur bertan, gure Euskal-Nortasunaren arnasa, naiko motelduta (difuminado) dago, artean ainbat erbesteko edo etorkin daukaguzelako eta isterbegikoak edo etsaiak, eginkizunaren erreztasunak edo aisetasunak euren alde daukiezelako, alegin guztian dabiltz daukaguzan guzurrezko laterri-menperatzailleen alde, gizartearen eskubideko aitzakiagaz, maltzurrezko ta guzurrezko ekintzarekin aurrera egiteko.

Konturatu bear gara baiña, laterri onein guzurrak, ez dabezala kontuan eukiten gizartearen sentimendu ta bear bearrezko ardurak: Eskubideetan, berdintasunean, Nortasunean, Erriaren Nortasunean, Nortasunaren Ekanduzko artu-emonetan eta Izkuntzan. Eurak gura dabezelako eskuetan euki menperatzailletasunezko tresnak domukidearen (socio-capitalista) alde, guk berezko ta arrazoizko ardurak, euren keiñada ta zigorraren bidez beteteko.

Eginkizun ori ez da bakearen bidea, ez dagozelako gizartearen morroi edo zerbitsura eta beren ondorioz, gizartean gaur-lez, arduragabetasuna agertzea da.

Eurak gura dabelako naastetasun ori, gure bizitza xautzailletasunezko ekintza baten eukinda, sasi-jainkotasunean bizitzea.

Baiña bakez bizitzeko, sasi-arrazoi orreik berezko egiaren aurrean, ukamen edo ezeztapeneko (contradicciòn) uts-baten agertzen dira, bereztasunezko legeak ain nabariak diralako.

Orduan.... etenbako borroka baten bizi bearra ?.

Idaz-lan onen asmo-azterpen edo egitamu-saioa, bakar edo launa (simple, comun) da, Mundu onetan egin bear doguzan gauzak soillak edo leunak diralako. Eta Konturatu, gauzaren eginkizunak gaitzikor edo trabakor agertzen diranean, baten-bat maltzurkerian edo guzur betean dabillelako dala.

Mundu onetan, gaurko goi-maillako jakintza txeberatuta dago, NORBERKERITIK ezin daualako urten (Begitu bestela zer dan, Aita-Santuaren Islam`en aurkako anka sartzea). Arik eta Erromatarrak asi eben menperatzailletasunezko asmakizun ori (Munduko sasi-jakintsuak on-artu ebana), iruzur edo iruzaku egite baten antzera berezko legearen aurka amaitu arte. Edo bestela, goiko jakintzaren aldetik, edestiko uts-egite aundi-baten antzera onartu arte.

Ori da gure gaurko Munduan dagon irugarren borroka nagusia, gizartearen eskubideak ez diralako lotsean artzen. Eta Or !! gure EUSKALERRIAREN arazo aundiena.

1.901`an Urtarrilla`ren 5`an Arana`tar Sabino`k Arantzadi`tar Ingartzi`ri (Kizkitza) idazten dautson eskutitzanlez, gaur bardiñ-antzera baten gagoz, arazoa goian ikusi dogun-lez bardiña dalako.

IKusi bestela:

Sabino`k denbora areetan aberkideen artean itxitasunaren alako bat, edo abertzaleen artean biotz-galdu edo kikiltasun antzeko bat ikusten ebalako, au esaten eutson Ingartzi`ri:

"Gogoratzen azten nazenean onetaz edo endaren goraberan, au bajoakula aitzen dot eta bajoaku asi dogun gizaldia amaitu orduko"

"Gure erriarentzat zabalkundea latz biurtu jaku, asarregarria da !!. Espaiñol`ak ikusten dabelako euren aberriaren osotasuna arriskoan dagoala, espataren arrazoia artzeko".

"Aukera bakarra diruan dago eta au ez da aurkitzen". Baserritarrak geiegi daki, Euskereak ez dautsola ezertarako be balio semeari.

Zuzenbide bakarra ba: Lantokiak sortuaz da, baserriak erosi, lagun-arteko ontzigintzari eutsi, langintzako eta trebetasunezko alkarteak antolatu, anai arteko ongilleak eta arrantzaleentzako, nekazaritzarako, abel-azikerarako alkartasunak (mutualidades) sort-arazi eta ibilbideak zabaldu edo jabetuz..... bizitzan eskutarteko guztiak legez-erritaratuaz (nacionalizando), Euskereak zeozertarako balio dagian, nai-ta naiezkoa izan daitela eurakaz artukizuna eukitea. JAINKOA Aundia, Aalduna eta Bakarra da zuzendu leikena !!.

Bearrezkoa da Euskerea naikoa izan dedilla eta gertatzen dana da, ez dauala balio nekazaritzako egintzaren izketarako baiño.

Bizkaian, bear doguzan liburuak be ez daukaguz azibidea burutzeko, guztia ez, erlijiozko oituraren azibidea baizik, bear bearrezkoa, emakume gaztea sendi baten ama izateko dana.

Ai nere laguna !!. Au baserriaren barruko bizitzan sartzen asten danean, nor-berak argi ikusten dau; gauza-bat oartzen dau (experimentar): "Biotzak negar egiten dauala eta negar egiten dau zuzenbideak aurkitu ezinik". Gure Aurrekoak zer egin dabe ? Zer egin dau Eleizak ? Eleizkideen amak ?

Gizaldi asko dira gure erria laguntzarik gabe dagoala: Euzkera ber-beran dago orren ezaugarria. Egiazko mirari aundia da, gure zoritxarreko erri au, asierako bidetik eta apaizak bideratuta, ez ziurtasunez txarra, baiña ardura gitxikoa, bizirik irautea.

Gaur-arte gorde egin dauana, ara ez dan eldu oraindik arazo-aldia, beren duintasuna, bere lotsagizuna eta zintzotasunak izan dira.

Alan ba, bera begituten badogu, erri ber-bera, esan leike nai-ta naiez iltzeko bidean dagoela. Baiña JAINKOA`ren eskuari begitzen badautsagu, Bera da eutsi dautsona, nor-berak itauna egiten dau: Izango da.... JAINKOA`k gura ez dauana au desagertzea ?

Emen garbi ikusten da ez zala ameslari bat. Ankak ondo ezarrita euki ebazalako lur gaiñean. Eta gutxiago zoratuta.

ONDORIOA:

Guzti au ikusita, Euskalerriaren eragozpenak ez dira borrokarekin konpontzen, eurak maltzurkerian eta gudaindarrean geiago diralako. Gure izatasunezko tresnak beren senera ekarrita baizik.

Orregaitik alegindu bear gara, Europa`n eta Mundu`ko belarri guztietan Euskalerriaren izena, zentzun aundiko soiñu edo atsegiñezko otsakin entzun daiten, gure ezinbesteko askatasunaren egarriari, on-erantzun dagioen.

Zeozer badakie, gure erria ikustera gero ta geiago etorten diralako eta egon giñan larritasunetik gaur artzen gabizen itxuragaz txundituta, asko atsegin jakielako.

Orreik dira gaurko bideak Europa`rako, Euskalerria, Kromañon`etik onarte eta gaur, askatasunezko izar nagusi lez artu dagien.

ATUTXA´tar PAUL
ZORNOTZA`n 2.006`an IRAILLA`ren 18`an

IPUIN SARIKETA
(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKARAZALEAK ALKARTEA'K, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

- Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.
- Ipuinak asmaturikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.
- Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.
- Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2ª eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta Zer'en agertuko da, Urterrillean.
- Sariak bost izango dira:
  1.ª 300,50 euro 4.ª 120,20 euro
  2.ª 240, 40 euro 5.ª 60,10 euro
  3.ª 180,30 euro
- Ipuiñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.
- Epea abenduaren azkenera arte.

EUSKERAZALEAK

DONOSTI´KO KAI TXIKI BATEN...TASUNA (AZKOITIA´KO ZALDUNTXOAK)

Peñaflorida´ko kodeak (eta lagun zituen bere maillako gizon batzukin).
Auxe da aspalditxotik (Europ´ra begira zeudenez) ordurarte eztabaidaketara zeramatena. Eta aurrera onik eman ezkero Gipuzkoa´ri bereziki ekarpen aundiak bereganatu zitzaketenak.
Baltzu berri bat!
Benezuela´kin artu-emanetan jarri bearr. Auxe zan ideia nagusia.
euskal ontziekin Benezuela´ra joan eta probetxoxko eta gabeko lur eta emaitzak metatu-bildu eta ondoren ontziak salerosgaiez zamaturik etxera itzuktzea.
Lenengo eginbearradiruarena zuten. Kapitala sortzea. Akzioak saldu eta legezko baimenak lorturik Konpañía sortzea. Suskribitutako akzioen eragiñez kapitalak berealakoan gorakadarik ez du lortu. Oso geldi baizik.
Ameriketako koloniak ba´zeukaten ola-olako ekonomirik, baiñan len-produktoak eramateko etzuten ainbat nai ontzirik.
Bestalde Europa´ko laterriak itxasoan leiakide izaten asi ziran. Ta guardi-kostarik eza oso garrantzikoa zan.
Lenen talkak inkizioarekin eta jesuitekin izan ziran. Auek izan ziran Austriatarrentzat bi arma. Borbondarrak abaildu bear zituzten indar-leku oiek ezertan asi baiño len.
España, elizkoia zan erabat. 9 milla komentu eta 70 milla praille e.a.
Laurdena elizatiko jendea zan. Orregatik Elizak sekulako indarra zeukan Madril´en biotzean Ameriketako azken bazterreraño.
Compaña´ren ideia merkatari ideia zan, politikoa eta filosofikoa. Dana mugitzea zegokion Pirene´tik asita Ameriketarañokoa. Itsasoz zearka zezaten ontziak, abian jartzea. Dinamarka´k bere aurrerapena zoriketa auetan jarri zuen. Euskaldunak kultura-plan berritan eta diferentetan oiñarritzen dute. Gañera euskaldunen plana ez da piratakeria eta ez dira ezertan fanatizatuak.
Merkataritzarekin orra Ameriketara dakartena: Enziklopedia eta liburuak. Gipuzkoar geienak Compañia´n daukate jarrita euren konfidantza. Gipuzkoarrak komertzioaren monopolioa izango du, kakaoaren plantazioak zabalduko ditu eta Holanda´ko kontrabandisten aurka gogor egingo du.
Andik laister, 1730 garren uztaillean euskal ontziak Pasai´tik irten eta Puerto Cabello´ra datozela ikusten da. Eta Holandar auek orduan, aurka jarri zaizkigu. Uztaidunak gorde egiten dute kakaoa. Baiñan euskaldunak setatiak diranez ziria bezela aien kontrakoan gogor jotzen dute.
Gipuzkoar ontziak kakao-zamaz españar kaietan sartzen diranak Ameriketara jotzen dute, Voltaire´ren, Rouseau´ren liburuak eramanez.
Karlos III´garrena errege-alkira igotzen danean, España ideia berrien irakindegia da. Ta españar bizitzaren aidea aldatzera dijoa. Eta jesuitak liburu berriz eratzen asten dira.
Orra ba, gipuzkoarren eragiñez mundu berriaren pizkunde ta aurrerapena. XVIII´garren gizaldian asten da egiazki aurkikundearen aldia. Amerikarrak eta europarrak pizkortu, sukartu eta griñarazten dituana.
XX´garren gizaldiko amerikar trust bat izan zan XVIII´garrengo gure enpresa, baiñan erabat euskalduna, Ezur-muñ euskalduna, euskalduna kapitala, zuzendariak eta pilotoak ere euskaldunak. Itsas ontzien onomastikoak ereberdin. Eta guzien gaiñetik Gipuzkoa eta Bizkaia babestu eta gerizpetu ginduan gizonik lerargiena: San Ignacio Loiolata´ra.
Aztu gabe Koruko Ama! Zure tronu inguruko guztia (eliz-basilika) XVIII gizaldi erditsuan eraikia Cía.´ren laguntzaz izan zan. Beraz gure babesa izan zeranez eskerrak ematen dizkizugu, aurrerantzean ere lagun izango zaitugulakoan.
Donosti´ko kai txikia oroimingarrizkoa zaigu. Baiñan ezin izan diteke bukatutzat jo jatorria. Iriaren itsas tradizioak bizirik darrai. Ta bere egin-zaletauna gero ta aziagoa. Ejenpluz or dugu Pasai´ko kaia, zabala etengabeko goraldian.
Kaitxo ontan garai bateko eta oraingo itsastarren bultzakadak bizi ditezelabetiko.

EGAÑA´tar Gotzon.



Antillasetako piraten ontzi bat

ELIKOPTEROAK

Egazkiñakaz batera doan beste tramankulu bat da elikopteroa. Egaz egiteko edo aidean ibilteko da baiña ez dauka egorik eta beronek ekarri leikezan laguntzak be ez dira egazkiñenak lakoak: Ez dira arin joateko, baiña aidean geldi egon leitekez eta ori egazkiñak ezin dabe.

Egazkiñak baiño asko geroagoko asmakizuna da eta errerza dirudi, baiña asko kosta da bera lana egiten ipintea.

Leonardo de Vinci´k egin eban lenengoa zirriborro lez, baiña galdu egin zan. Eta ez geunken barririk 278 urtetan.

1784n. urtean Txina´n asmau eben jolaserako eta andik etorri zan Europa´ra. Cayley´k egin eban antzeko zerbait.1828n. urtean Sarti italiarrak egin eban beste eredu bat. 1863n. urtean frantzetarrak beste eredu bat.1878n. urtean lurrunez egindako bat aurkeztu eban Foslamini´k. Eta 1907n. urtera arte ez zan agertu besterik Urte onetan Bregel anaiak egin eben beste bat eta egaz egitea be lortu eben, baiña akats asko eukazan: 1m. baiño ez eban igoten, iñok ezin eikean gidatu, alde batera jokerea eukan... Oraindiño asko peitzen da elikokperoa asmatzeko.

Baiña asmatzailleak aurrera jarraitu eben eta azkenean Juan de la Cierva´k autojiroa egitea lortu eban: Ego bakoa,bira.gaillua bai, baiña ez zan elikopteroa, ez gora eta ez bera eta ez geldi, gidatzeko be gaitxa zan.

Autojiro ori betiko galdu zan elikopteroa asmau zanean. 1938n. urtean izan zan, Alemania´n: 3 350m. gora igon eban eta 80 minutu egaz egitea lortu eban eta orduko 122 km. egiten ebazan. Aurrean eliza eukan.

Eta zertarako izan zeitekean elikoptero ori?

- Egazkiña jatsi ezin dan lekuan jatsiteko.
- Edurtzetan eta olakoetan jatekoak eroateko.
- Uretan galduak salbatzeko.
- Notiñak naiz mezuak toki batera arin eroateko.
- Lurra goitik aztertzeko.
- Argazkiak lurrari egiteko
- Leku ezkutuak aurkitzeko.
- Bide zabaletan begiratzea egiteko.
- Urioletan galduak salbatzeko.

EGAZKIÑEN TRESNAK.

Wright anaiak iru tresnagaz egaz egin eben: Garai-neurkiña, aize-neurkiña eta elize-neurkiña. Geroago soka-zatia asmau eben egazkiña norantza doan jakiteko.

Baiña geroago tresna asko eta bearrekoak asmau dira:Irratia, erradarra eta elektronikoak

Eta geiago egazkiñak gudarako ziranean, esaterako jaurtigailluak, eta barruan doan gizonaren egitekoa asko arindu eben: Gora ala bera ala aurrera doan jakitekoa, aize abiadea nerurtzekoa, goierea neurtzekoa, konpas magnetikoa norantza doan jakiteko. Lagungarri onek egazkiñaren eskuman ipinten dabez eta gidaria ezkerrean joaten da.

AIDE-KAIAK.

Egazkiñak euren ibillaldia eginda datozenean, lurrera jatsi bear dabe. Ori da egazkin-kaia. Baiña itxasoan be jatsi leitekez, orretarako egazkiña gertatu ba da, uraren gaiñea eta egazkin-leku aundiak uraren gaiñean eginda.

Lurretik gora igoteko be balio izaten dau kaiak.

Orain lurreko kaietan sartzeko ta urteteko pista luzeak egin dira eta torre bat ezarten da lurretik egazkiñai laguntzeko, orretarako irratiak asko balio dauela.

OLAZAR´tar Martin´ek.



Louis Breguet, elikopteruan lenbizi egan egin zuan gizonak asmatu zuan, eredu au. Gerora obetua izan zan urte batzuen ondoren.

ETA 6.-IZAR-GIZONA

1957n. urtean asi zan izar-artean ibiltea. Izar artean esatea ez da oso egokia, baiña ulertzen da, or goian daukagun ortzian esan gura dau,naizta eguzkitik eta izarretatik urrin egon.

Urte orretan Errusia´tarrak aidera bota eben lenengo izar-tramankulua. Bialtzeko oiñarria su-ziri edo koete bat izan zan. Igon eban tramankuluak eta lurrari bira emoten asi zan, SPUTNIK edo "bide-lagun" zan: Aluminiozko esfera bat 58´4´ zm´ko diametroa,83´4 kiloko pisua eta tresna barri-barriak barruan. Ikusi be egiten zan zeruan goizean eta illuntzean. Lurretik 900 m.´ko goieran ebillen eta orduko 29 000 km. egiten ebazan.

Lurraren inguruan, bira osoa 96´2 minututan egiten eban. Iru aste egin ebazan albisteak bialtzen.

1958n. urtean , lenengo astean , eguratsera sartu zan eta emen goritu eta erre egin zan, baiña 60 milloi km. eginda eta lurrari 1 400 bira oso emonda.

II SPUTNIK, laguna barruan ebala joan zan 1957n. urtean au be. Txuntxurra iru zatitan eukan eta irugarrena geratu zan,508 k.´ko pisua, aurrean txakur bat laika izena eukana. Au il egin zan. Piztiakaz olako bizi-ikasi asko egin ziran gizona joan baiño lenago.

1958n. urtean amerikatarrak EXPLORER I bialdu eben: txikia zan, 14 kiloko pisua eta 2303 zm´ko luzerea.

1958n. urtean barriro amerikatarrak II VANGUARD, iru zatitan,16´25zm. luze, 1´5 koloko pisua. Txikiena ta aluminiozkoa zan eta onexek igon eban goren., lurretik 4 021km. gora.200 urtean iraungo dau.

Andik 9n. egunera EXPLORER III, itxasora jausi zan. Olako 15 bota dira, eta 12 amerikatarrenak izan dira.

EXPLORER VI bialdu eben 1959n. urtean eta au 42 418 km. gora joan zan.

1962n urtean asi ziran tele-alkarteak sortzen. Oneikaz laguntza aundia emoten dabe telebista guztiak mundu guztira euren egitarauak bialtzeko. Diruz alkarrari lagunduta egiten dira Orreikaz batera dagoz beste batzuk egualdiaren barriak emoteko.

1965n. urtean bialdu zan MARINER IV Marte ikusteko.

IRETARGIRA

Iretargia ikusi-gurea eta al izanik bertara joan gurea bizi-bizia izan da gizakiengan! Eta ez dala gauza gaitxa esaten zan, ez beintzat Atlantik itxasoa igarotea baiño gaitxagoa.

Lenengo gidari bako su-ziri edo koeteak bialtzen asi ziran, indarrak aztertu eta neurtzeko.

1958n. urtean bialdu zan iretargira lenengo su-ziria, PIONER I. 18 k.´ko kutxa bat zan eta barriro lurera etorri zan., baiña 114 745 km gorantza eginda. PIONER III be jausi egin zan 107 268 km. eginda.

1959n. urtean Errusia´k LUNIK I bialdu eban eta iretargitik 7 650 km.´ra eldu zan.



«Sputnik II´k» Bidelagun bat zeraman: «Laika» txakurra. Emen ikusten degu bere gelatxoan, suziriaren txuntxurrean sartuta.

PIONER IV USAk bialdu eban eta iretargitik 60 000 km´ ra eldu zan eta eguzkiaren inguruan biraka geratu .

Errusia´k LUNIK II bialdu eban, 390 kilokoa eta iretargira jausi zan. Gero LUNIK III 1 500 kolokoa, eta onek iretargiaren atzea ikusi eban eta argazkiak bialdu.

1966n. urtean LUNIK IV astiro jatsi zan iretargira. Argazki asko bialdu ebazan, batzuk iretargitik zm. batzutara egiñak.

Emen amaitzen da barri oneik emoten daustazan iturria, pizka bat antxiñakoa dana, baiña ba-dakigu geroago gizakia eldu dala iretargira eta telebistan ikusi al izan dogu an emon eban urats txikiaren irudia.

Batzuk ez dabe sinisten iretargira eldu garanik eta irudi orreik asmautakoak dirala diñoe. Ori ez da sinistekoa, baiña ori jazoteko arriskua ba-egoan Gaiago, ori jazo be egin zan. Pausu txikia emotearen irudiak txartu urten eben eta gero guk ikusi doguzanak, arein antzera lurrean egiñak ei dira.

OLAZAR´tar Martin´ek

* * *

OZEANIA

UGARTEAK

Ugarterik geien dagon lurralde aundia Ozeania da.

Australia deritxo lurralde aundiari eta andik urrean dagoz gutzat buruz bera bizi diran gizakiak, antipodak, Zelanda Barrian.

Itxaso Barearen barruan dagozen ugarteok iru moltzotan banatzen dira: Iparraldean Mikronesia edo ugarte txikiak, erdian Melanesia edo baltzen ugarteak eta egoaldean Polinesia edo ugarte ugariak.

MIKRONESIA

2 500 ugarte dira eta guztiak batuta be ez dira eltzen Paris´en neurrira.

Batzutan ez da iñor bizi. Oneik, itxasoak bigundu arren, berez bero kizkalgarria dauke.

Landara ta orlegi asko dauke ugarte oneik eta kokoa da euren zugatz nagusia.

Ango gizaki urrien janaria koko-aleak eta arraiña dira.

Ugarterik ozpetsuena Bikini da. Emen, 1956n. urtean, uztaillaren lenengo egunean, kizi-indar edo atomozko lerkaia lertu eben. Orretarako ango 165 arrantzaleak beste ugarte batera eroan ebezan, euren erregeagaz batera.

Ondorenak ikusteko, lenengo itxasontziak urperatu ebezan, baita egazkin eroalea bera be. Gaiñera 167 auntz, 3 000 sagu ta arratoi eta azterketa egiteko 57 indi-untxi (conejillos de indias).

Juda I, euren erregea pozik eta arro egoan Curie eta Einstein´en antzera, aurrerapenari lagundu eutselako.

MELANESIA

Baltzen ugarteak dira, izenak diñoan lez. Euren artean dagoan Ginea Barria´n bizi dira paputarrak, oso atzeratuak. Ez dakie etxeak egiten, ez zugatzak zaintzen. Eiztariak eta giza-jaleak dira.

Txikitatik ikasten dabe jabalinak botaten eta azkonagaz gesiak bota eta eizatzen.

Melanesia´ren barruan dago Ginea Barria, baltzen lurraldean, Australia´ren ipar-aldean. Oso atzeratuta bizi dira eta giza-jaleak dira. Zugatzak zaintzen be ez dakie, gitxiago etxeak egiten.

Eiza dabe janari-bide.

Itxas-ertzean bizi diranak ezita dagoz eta bedarrezko etxe biribillak egiten dabez.

Euren tresnak arrizkoak eta azurrezkoak dira. Sua biztuteko egur bi alkarragaz igortziten dabez.

Luma margotsuz apaintzen dabez euren buruak.

Ingurukoakaz batera dakie boomerang erabilten. Au jaurti eta elburura eldu eta atzera etorten da norberagana.

Ugarte asko oraindiño aztertu bagerik dagoz.

POLINESIA

Lurreko atsegin-baratza dira ugerte oneik. An beti da udabarria eta landarak urte guztian azten dagoz. Igale-landarak berez sortzen eta azten dira eta beti dagoz igaleak emoten: kokoa, piñak eta abar.

Arraiña ugari dauke arri-arteetan eta sarritan sardeagaz arrapatzen dabez.

Maori´tarrak dira, berez zuriak, baiña eguzkiak baltzitu ta gorrituak.

Oso alperrak dira, uger egiten eta gitarrea joten zaleak.

Emakumeak oso txukunak dira eta margo bizidun jantziak jazten dabez, iñoz baiño geiago jai aundietan dantzatzeko.

Idunean ezkegita lore-uztaia pozik eroten dabe, batez be ondo-etorria emon eta agurra egiten dabenean.

Oso lotsorrak dira. Ez dira ausartzen "zelan zagoz" itauntzen be.

Illuna gorroto dabe eta gabean etxe guztietan eta gau osoan argia iziotuten dabe, orrelan lasai lo egiteko.

AUSTRALIA

Munduko ugarterik aundiena da, Europa osoaren bestekoa.

Mendirik aundiena Kasziusko dabe, 2 240m´koa.

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila Departamento de Cultura

ALDIZKARI ONEK
BIZKAI´KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LAGUNTZA JASO DAU



Canaca buruzagiaren txabola nagusia

Sarritan joaten dira mendi orren gaiñera berebilletan.

Lurraren lautatik bat basa-mortua da eta eguzkia oso argitsua izaten da lurralde orreitan.

Aundia izan arren, bakartadean bizi da, beste lurraldeak asago edo urrin daukazalako.

Abere ta pizti asko daukez: metro bi gora jauzi egiten dauan kanguroa, umeak sabel-azpian eroaten dakiana, ulebako ornitorringoa arrautzaz ugaritzen dana, koalak eukaliptuen orriak janda bizi dana, ur barik bizi diran arraiñak, eta, batez be, ardiak ugari. Ardi mota-batzuk emendik eroanak dira. Ango artulea oso onartua da munduan.. Gizaki bakoitxeko 13 ardi daukez eta lurraren egoaldeko lurraldetan diran Egoa-Amerika´k eta Ego-Afrika´k baiño ardi geiago dauke. Antxe dago munduko ardirik geien.

Izatez, zuriak dira, anglandarren ondorengoak, baiña ba-dagoz bertako baltz batzuk be.

KALEDONIA BARRIA

Frantze´ren menpean egon zan oraintsura arte eta Kortzega biren bestekoa da.

Inguru guztia atxak dira, uinbageko sarrera dauleka.

1863-1914 urten bitartean zigortuak eroaten ebezan ara, orregaitik giro oneko lekua izan arren, izen txarra dauka. Lurra aberatsa da eta jentea biotz zabalekoa.

Guztira 70 000 biztanle dira, Numa uriburu dala.

Meta-antzeko eta zurezko etxe biribilletan bizi dira, pipa aundiak erreten.

Plazearen erdian dauke alako etxe biribil bat, agintariarena. Antxe dago jakituria eta antxe aurretikoen arimak be.

Kaledonia Barria´k etorkizunari begira, ixaropena euki leike, meatz onak daukazalako eta aurerapena be asita dagoalako.

OLAZAR´tar Martin´ek.

EUSKERAZALEAK

Urteroko Batzarra • Asamblea anual

2007-01-25

1.- Aurkezpena/Presentación (Olazar´tar Martin Lehendakariak).
2.- Urteko ekintzak/Actividades del año (Lehendakariak).
3.- Urteko Kontuak (Clientas- Karmele Fernandez).
4.- Arduradun Barriak/Renovación de cargos.
5.- Eskariak eta itaunak/Ruegos y preguntas.

KIERKEGAARD (1813-1855).

Ona emen filosofo arrigarri bat,aingerutxu bat! Besteen antzik ez daukana.

Kopenhage´n jaio zan eta aita eban otoitz-zalea, ona eta zintzoa pietista Lutero´tar protestanteen artean.Aita onek bere semea eleizako artzain izatea nai eban. Bere uriko ikastetxean ikasi ebazan filosofo klasikuak eta luterotarren teoloji edo jainko-iztia., alemanen idei-bide edo idealismoagaz batera,Hegel nastean dala.

Itun,goibel,bizi izatera eukan berezko jokerea eta ez eban azpiratu jaietara eta jolasetara joan arren.

Gaztaroan kristiñau zintzo jarraitu eban, baiña gero aitaren bidetik alboratu egin zan. Aitak itzi eutson betiko ituntasun ori, bere burua errudun zomatze ori, ez jakon kendu.

Rejina Olsen neska gazteagaz maitemindu zan, baiña alperrik, itunago biurtu zan berak Jainkoaren bidea ikusten ebalako.

Bere idaz-lanak, esaterako "Aut-aut"(1843) edo Ikarea ta dardarea (1843) Birriñak (1844) Larria (1844)... alkarizketa didaktikuak dira eta norkien bidez egiten dau berba.Ez da beti jakiten norkietan noraiño dagon bera sartuta.

Barru-larriaren edo angustiaren filosofoa esaten jako eta da.

Izparringiak eta Dinamarka´ko luterotarren eleizea jarri jakozan aurka eta orreik eroan eben eriotzara:Benetako kristiñau izatea nai eban eta orretarako bere aldiko kristiñautasuna, laterriagaz lotuta egoana, kritikatzen eban."Cristiandad" edo kristñau-erria alboratu eta eleiza kristiñaua nai eban.

Berogeta bi urtekoa zala, bere uriko kalean jausi egin zan eta laster gaiso-etxera eroan eben eta an il zan.

Zelan ulertu Kierkegaard´en filosofia?

Filosoforik jainkozaleena dogu, baiña larri eta goibel bizi dana. Bere eguneroko bizitza.idazkian ikusten da ondoen bere filosofia zein dan. Erlejiñobideko idazlea dala diño berak, kristiñau izan nai dauana.

Zelan lortu ori?

Erri-kristiñautasuna eta fede-kristiñautasuna ondo bereiztuta (Cristiandad/cristianismo). Erri.kristiñautza ori salatu egiten dau,eroso biziteko laterriagaz bat egiten daualako.

BAKOTXA (individuo) da garrantzia dauna.Orretan da batez be Hegel´en aurkalari.Jainkoa ta mundua gauza bi ondo banatuak dirala be ba-diño Hegel´en aurka.

Bakoitxa Jainkoaren menpera doa baiña nortasuna galdu barik, gorputza ta arimea espirituan egiten dira bat eta ondoren dator "ni" izatea, ori be Hegel´en aurka "ni eta ez ni" esaten ebalako."Ni " ori Jainkoak egiña da eta Jainkoa alboratzen ba´dau, galduta dago:Bakoitxa bakarra da, ez dago izate abstraktorik.Bere zatiak alkartu bear dauz (dialektika:Tesis da gorputza,antitesis arimea eta sintesis espiritua).Norberaren espiritua ezagutzeko gorputza eta arimea ezagutu bear dira eta olan Jainkoagana urreratu.Espiritu ori (gorputz eta arima)Jainkoaren aurrean dagoan "bakotxa"(individuo) da. Alkartze ori da itxaropendun izatea.

Bakoitza edo "ni" orrek sei egoera oneik euki leikez:

1) Zentzunezkoa edo estetikua: egoera au oraindiño espiritu bakoa da eta ez da "ni". Ez daki zertarako bizi dan, mozkortia,diruzalea eta arroa da eta beragandik kanpoan egiten dau bizitzea,norberekoia da eta nasai bizi da.Ezin dau maitatu iñor, ez ezer,gogaituta bizi da eta jolastu arren be itxaropena galtzera doa.

2) Zuzenbidezko edo etikazko egoerea: Itxaropena galtzen danean asten da bizitza zuzena, Jainkoa aurkitzen da.Norberak aukeratu bear dau itxaropena galtze ori, Jainkoagana joan eta betetasuna lortzeko.Ori benetako bizia da, baiña lenengo damutasuna bear da gero onoimenak lortu (telos) eta Jainkoagana urreratzeko.Ortik dator gero gizarteratu eta zeregin guztiak betetea.

3) Erlejiño-giroko egoerea:Etikazko egoerea,estetikazkoa baiño obea da, baiña ez da onena. Abraam´ek ba-eukan etikazko bidea baiña ori azpiratuta Semea ilteko gertu egoan, eta Jainkoagaz fedea eukitera salto egin bear izan eban. Bakoitxa be, Jainkoaren aurrean etika ondo beteta gero erlejiñora, federa eldu bear da, fedea irria da, pasiñoa da, eta irria bear da ziur ez dakigunari baietza emoteko.

Filosofo au ba-dago Hegel aurka, esan doguzan gauzetan, baiña onek bakoitxari emoten dautso balioa eta bakoitxak aurkitzen dau Jainkoa.

Bere aldian ez eben filosofo lez aintzat artu, baiña bai XX gizaldia ezkero,ortik sortu dira izate-zaleak edo eksistentzialistak (Sarte,Heidegger),ortik gure Unamuno, baiña "larrian", angustian, geratzen dira,(Gogoratu Unamuno´ren "sentimiento trágico de la vida") Kierkegaard ostera gorago joan zan, askoz gorago.

Luterotarren aurka,egiteai balioa emoten dautse eta gauza askotan katoliku-antza geiago dauka.

Gaurko gizonai asko diñotse, bideak zabaldu ebazan jainkoagana urreratzeko.

OLAZAR´tar Martin´ek.

BIZKAIERAZ H'KAZ?

Emen aitatu bear dodan guziak bardin balio dau bai gipuzkerarentzat, bai goi-naparrerarentzat. Orain pozarren ikusten dogu bizkaieraz zer-edo-zer idazten asi dirala; benetan txalogarria deritxat. Euskaltzaindi'ak 1968'gn. urtea ezkeroztik ezarri eban idazkeraz, ordea. *H* izkia erabiltzearen aldekoek esaten ba'eben, izki ori erabiltzeko errazoia Ipar-Euskalerri'n erabiltzen zala, zergaitik erabilli bear geunke bizkaitar/goi-napar/gipuzkoarrok? Esaten ez dogun, otsik ez dauan izki ori zertarako alperrik idatzi?

Askotxutan ikusi daroadaz, euskeraz idatzi gura dabenek zer zailtasun ikaragarriak edukiten dabezan; esaterako, norbaitek "caspa" edo "salvado" berbea euskeraz ipiñi gura dau. Euskeraz *"Zalgia"*, *"Zaia"* esaten dala jakiteak naiko lan aundiak emongo dautsoz, itz ori batuaz "ZaHi" idazten dala jakin barik be. Ez da bat ere bidiztikoa, lojikoa *Haitz*, *Hil* eta *Herri* idaztea, gero *"aizto, aizkora, aizturrak, azpilla, illargi, ertzain, ertzaintza"* idatzi daigun.

Emengo aldean Hondarribia idazten baldin ba'dabe be, arrigarria da orratio beste aldean Ondarraitz arkitzea, ta ango ikastola-batza nagusia Seaska dala gomutarazo bearrean gara, batuko "Sehaska" barik. Toki-izen eta abizenetan dagerkuzan Arrieta, Urizar, Arregi, Oria, Iturriotz...? Egunen batean era ontara idaztera beartuko al gaitue? Harrieta, Hurizahar, Harregi, Horia, Iturrihotz...? Ori gonburua izango litzake!

Maiz nabari dot euskaldun zaar ugarik aixago irakurri ta ulertzen dabezala LL ta Ñ'z egindako H'bako idazkiak batuaren ortografia darabillenak baño. Erria irakurzaletzen ez ba'dogu, akabo, gureak egin dau...!

Zentzuz jokatu daigun, eta konturatu gaitezan, idazkera baldras ori ikasten xautzen dan denporea, eliztia edo gramatikea ta iztegia ondo baño obeto sakontzen emon leitekeala.

Gure euskerea diglosi egoera garbian da, ta erdel giroaz inguratuta bizi gara. Europa'ko izkuntza indartsuak erabilten diran laterrietan barriz, bertako berbetak dira nagusi, ta bertakoek naitaez ikasiko dabez.

Lurbira zabalean ainbat ta ainbat izkuntza ta izkelki bizi dira, ta ikusi daigun orreitariko izkuntza batzuek artu dabezan buru-bideak:

Gure inguruan bizi diran erromantze izkuntzek badaukie H mutu edo ots-bako ori, baña irakurleak saioa egin gura baldin ba'dau, artu begiz euskeraz, pantzeraz eta gazteleraz idatzitako idatz-zati bana, ta errez jabetuko da euskerazkoak askoz be H geiago daukozala..

Italierak, izkuntzaren idazkerak dituan arauak errezte aldera, *H* izkia bere berbetatik ia-ia izkutatu-erazo egin dau; orain berba bakan batzuetan baño ez da erabiltzen. Ona emen ulerpide labur-laburra:

Gazteleraz "hombre, hiena, homogéneo" idatziak, "uomo, iena, omogeneo" ageri dira italieraz. Zur eta lur geratu naz zer itz gitxik dauan *H* letrea jakinda, izan be, lateraz *H* daukon ainbat berbaren itz-sorkun edo etimolojia ez dabe zaintzen, erabilgarritasunaren mesedetan. Itali'ko mintzairak idazkera zearo araubidezkoa ta argia dauko, beste askorentzat eredugarri dana.

Doixtera edo alemanak, kontsonante ondoren eskribiduten baña oguzten ez zan *H* letra kendu egin eben. Orrela, leen *Thal* (arana, ibarra) zana, *Tal* ageriko jaku aurrerantzean.

Esan bearrik ez dago, alemanez eta ingelesez *H* berez argi-argi oguzten dala, beraz an bear-bearrezko ikurra dabe. Bestalde, aitatzekoa dogu be doixterak itz barriak sortu aal izateko dauazan baliabide joriak, eta gaurko egunean barra-barra erabiltzen diran berba eurrez aspaldi barik sortutako itzak doguz, leen erbesteko itz arrotza erabiltzen zan tokian. Jakiña, alemanaren barrikuntza ori egin aal izan eien, laterri sendoa eukien, eta doixtarrek doixteraz obetoxeago zeiñ okertxeago baekien; an ez dabe-ta diglosi egoera itunik...Gomutarazo bear dogu garai areitan, goi mallako doixtarrek eta jakitunek, batik bat pantzeraz mintzatzen zirala...Ta apurka-apurka alemana berreskuratzen asi zirala, egiñaal aundiak jo ondoren. Au guzia be goraitatu bearrekoa ta eredugarri jaku.

Erbereetako izkuntzan, olanderaz alegia, berezitasun bat ei dogu. Belge'ko flamenkoek eta olandarrek idazkera ezbardiñak darabillez; olandarrena eraberritua ta erreztua ei da, flamenkoek idazkera zaar ta korapillatsuari eusten dautsoen bitartean.

Gerkerri'n be demotiko izkerea nagusitu ei da, errikoia alegia, joera klasikozaleagoen aurrean.

Turki'n Ataturk gudal-nagusiak barrikuntza sakonak sartu ebazan idazkera arloan. Orain ikasteko errezagoa dogu.

Orain Errusi'ko egoeraz jardungo naz. An, 1917'gn. urtean, ezkerzaleak agintera iritxi ziranean, kontsonante askoren atzetik eskribiduten eta esaten ez zan ots-bako izki bat kendu eben, "b" txikar baten itxurea eukona. Buru-bide orrek errusiar askori idazten ikasten lagundu eutsen, alperrikako zailtasun ori kenduaz. Errusi'n ezkertarrak errez-bidearen alde agertu jakuzan.

Ikusten degunez, gurean izan ezik, egundaño ez da egin idazkera zailtzeko erabarritzerik...Bai barriz, erreztekо...Zergaitik egin eben emen alderantzizkoa?

Euskalerri'n askotan aitatu oi dogun Irlanda'ko Erkal edo Eire'ri buruz be itz bi esan gura dodaz. Irlanda ta Eskozi'ko gaelikoa antzekoak dira, enbor bereko izkuntza batetik datozen bi izkelki; berbeta orreik keltar sendikoak doguz, eta gaurko egunean aul xamarrak ageri jakuz. Bertako izkuntzan maiz "dh, gh, mh" e.a. izki-talde mutuak ageri dira, oguzi edo ebakitzen ez diranak. Eskozi'ko gaelikoak idazkera zaarrari eusten ba'dautso be, Irlanda'ko Erkalekoak barritu egin dau ta esaten ez diran izkiak kendu dautsoz; leenengo begituan oartuko zara irakurle, Irlanda'ren idazkera barriak bakunagoa dirudiala. Ulerpideakaz aurrera gaioazan; aal dogunean, Eskozi'ko ordaña be eskeñiko dautsuet; batez be bigarren eta irugarren zutabeak gogartu itzazu, irakurle:

Eskozi'koa	**Irlanda'koa(zaarra)**	**Irlanda'koa(barria)**	**Euskeraz**
	Aimhdheoin	Ainneoin	-ren ordez
Còmhlari	Aoinfheacht	Éineacht	-gaz batera
Cunnart	Baoghal	Baol	Arrixkua, galtzoria
Biadh	Biadh	Bia	janaria
	Ceannóchad	Ceannód	
	Claoidhim	Cloím	
	Comhgar	Cóngar	
	Comhnaidhe	Cónaí	Biztantzen dot
Cuidich, cuideachadh	Congnamh	Cúnamh	Laguntza
	Cosamhail	Cosúil	Atsegiñ izan
	Cruinneóchad	Cruinneod	
	Dóighim	Dóim	
Las, lasadh	Éadtrom	Éadrom	Argia
	Éagcóir	Éagóir	
	Éirghe	Éirí	Bidaiatzen naz
	Fiafruigheann	Fiafraíonn	Itaundu
Gàidhlig	Gaedhilge	Gaeilge	Gaelikoa
Am bliadhna	Bliadhain	bliain	Aurten
brìgh	Brígh	Brí	Izaera, muiña
Tapadh leat/leibh	Buidheachas	Buíochas	Eskerrik asko
	Céadna	Céanna	bardiña
ithte	Ithte	ite	Jan egizue
	Laetheamhail	Laethúil	
clann	Leanbhaí	Leanaí	Aurrak, umeak
	Lobhtha	Lofa	
	Naomhtha	Naofa	
	Nodlaig	Nollaig	Egubarriak
	Riaghail	Riail	
rìoghachd	Ríoghdha	Ríoga	Bakalderria, erresuma
seachdain	Seachtmhain	Seachtain	astebete
	síothcháin	síocháin	
	Siubhal	Siúl	nabil
	Timcheall	Timpeall	inguruan
Tòisich, tòiseachadh	Tosnughadh	tosnú	asi

Alde ederra batetik bestera...! Ori bai da izkuntz ekonomia...Alperrikoak diranak ezabatzea, muiñari sendoago eltzearren...Guziz eredugarri...!

ETXABURUA'tar Asier'ek, 2005'gn. Dagonillaren 27'an

BENUS, KUPIDO ETA SIKIS ERREGE-ALABEA

Benusén eleizak utsik geratzen jaiazan eta altara aurreetan geroago ta lora gitxiago ikusten zan: "Eregearen irugarren alabea, Sikis, zan edertasunez bardinbakoa eta oneri eskintzen eutsoezan lorak.

Asarretu egin zan Benus Jainkosea eta Sikis neska ederra zigortzea erabagi eban.

Kupido bere semeari deitu eutson eta osineko ura ekarteko agindu eutson. Ur ori pozoitu egin eban eta ur orregaz buztialdi bat emon eutson Sikis neska ederrari. Ondoren lez, neska ori gizaki bildurgarri eta motz bategaz mateminduko zan. Orretarako Kupido´k bere gezi bategaz zauritu eban.

Arrezkero jenteak ez eban ikusten Sikis´en edertasuna eta barriro Benus´en eleizara joaten eta lorak ara eroaten asi zan.

Kupido´k Sikis´eri beste ur gozo bategaz aurpegia garbitu eutson baiña aizta bik senargaiak aurkitu arren, Sikis bera senar barik gelditu zan.

Sikis´en gurasoak ori ikusita Apolo´rengana joan ziran azti-erantzun baten billa, neskeari zer egin jakiteko. Baiña erantzuna ez zan izan atsegingarria:

- Eroan egizue alabea mendi gaillurrera

ERoan eben alabea mendira eta bertan itzi eta samintasunez beterik etxeratu ziran.

Larri egoan mendi-gaiñera Sikis gaixoa, senarra nois agertuko. Onetan aize bigun batek laztandu eta aidean eroan eban jauregi batera. Ateak zabalik egozan eta bildur barik sartu zan Sikis.

Jan-gelan maia beterik aurkitu eban eta jaten asi zan. Gauza arrigarria!

Inguruan ez eban iñor be ikusten eta janari ta edari gozoak maian ipinten eutsoezan.

Jauregi osoan be ez eban iñor ikusi eta gela eder baten lo geratu zan eta gero gizon baten abots adoretsua entzun eban:

- Zure senarra nozu. Zuretzat da jauregi au eta emen ikusi dozuna dana. Eskatu gura dozuna eta lortuko dozu, baiña ni ez nozu iñoz ikusiko eta errukarria zu ni ikusteko zeozer egiten ba´dozu!

Sikis ez zan zoriontsu bakartadeko biziera orregaz. Egun batzutarako bere amaren etxera joan zan, senarraren baimena lortu ondoren.

Senideak ekin eta ekin ebilkiozan olako senar ezkutuagaz ez fiatzeko. Aizto bategaz ibilteko beti esan eutsoen, eta pistitzar edo antzekoren bat gabean agertzen jakonean, aiztoagaz ilteko.

Egun batzuk igaro ondoren biurtu zan Sikis bere jauregira eta gau baten, senarra ondoan egoala somau ebanean argia biztuta, ondo begiratu eutson bere senarrari: Ez zan basajauna, gazte eder zoragarri bat zan. Eta eskeutan eukan argi-mutilletik orio-tanta bat jausi jakon senarraren gaiñera eta au aieneka itxartu zan. Asarrez begiratu eutson senarrak Sikis´eri. gero leiotik jauzi egin eta betiko iges egin eban.

Sikis, atsekabe orregaz burua galduta lez, itxas-ertzera joan zan eta an Benus jainkosearen eleiza batera parkeske joatea otu jakon.

Baiña Jainkoseak ez eutson ain errez parkatu eta bete ezin eikezan iru lan agindu eutsozan:

-Ik nai ba´don nire ederra aurkitu, iru lan egin bear ditun.

Egingo zituala esan eutson Sikis´ek.

- Eleiza onen barrenean ale pilo aundi bat jagon, era guztietako aleak nastauta. Bereizi egizan eguzkia sartu baiño len.

Asi eban lenengo lan ori Sikis´ek eta zomorro batzuk lagun ebazala egin eban lana.

Antxe agertu jakon Benus jainkosea eta bigarren lana ezarri eutson:

- Errekearen beste aldean jaukan artegi bat eta andik iru ardi-narru ekarri bear daustazan.

Ba-joian errekearen beste aldera baiña bidean kañaberak esan eutsoen:

- Kontuz ibilli, Sikis, ardi orreikaz. Basatiak dozan eta ikutu orduko erasoko aute euren adarrakaz. Itxaro egik illundu arte eta lo dagozenean elorri ta sasi-artean kateatuta aurkituko dozan ardi-narruak.

Kañaberai eskerrak emonda Sikis euren esanera jarri zan eta urrengo goizean eskatutako iru ardi-narruak eroan ebazan Benus´en eleizara.

Orduan Benus lanik gaitxena agindu eutson:

- Joan adi lurpeko erreiñura eta ango erregin dan Proserpina´ri kendu egion beti gazte izateko gantzua daukan kutxatilla.

Joan zan Sikis lurpeko erreiñura eta an Estijia eritxon aintziraren beste aldera eroan eban Karonte bekoki-illunak. Eldu zan Proserpina´ren aurrera eta Sikis´ek eskatu eutxon kutxatilla. ez eutsan emon gura, baiña ekin eta ekin lortu eban. Urten eban andik gantzukia beragaz eroiala.

Lur-gaiñean gauza bat otu jakon: -Neu be beti gazte izateko gantzuki orregaz neure burua igortzi bear dot.

Idegi eban kutxatilla, baiña andik urten eban ukenduak, berebiziko logurea emon eutson eta etxunda loak artu eban.

Kupido´k ikusi eban Olinpo´tik eta laguntzera joan jakon. Lotatik itxartu eban eta Jupiter´eri eskaria egin eutson Kupido´k. Ontzat artu eban Jupiter´ek eskaria eta Benus´ri deitu eta Sikis gaixoari barkatzeko agindu eutson eta Kupido, bere semeari, baimena emoteko Sikis emaztetzat aertu egian.

Parkatu eutson Sikis´eri Benus jainkoseak eta aundikiro ospatu eben bikotearen eztegua. Alabatxu zogarri bat izen eben eta Atsegiña ipiñi eutsoen izen lez.

OLAZAR´tar Martin´ek.

EUSKALDUN BERRIENTZAT



Au egiteko geziak jarraitu bear dozuz eta batuketak eta kenketak egin, borobilletan dagozan zenbakiakaz.

KARMELE

BBK txartela

EUSKERAZALEAK
Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO
200 pezeta (1,20 Euro)



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein BBK txartelekin eta, hilero, itzelezko opariak irabazi ahal izango dituzu.

bbk

ISSN: 1132 - 1350
Lege gordailua: BI-1452-85
FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es